



MANGA-PARTY LEHIAKETA

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. Mangamore 2025ko Manga-Party lehiaketa, Motsukora Elkartek antolatuta, urriaren 11n (larunbata) ospatuko da 11:30etatik aurrera Zelaieta Zentroko auditorioan (lehenengo solairuan).
- 1.2. Parte hartzeko gutxienerako adina 12 urtekoa da.
- 1.3. Lehiakideek 3 edo 4 kideko taldeetan parte hartu ahal izango dute, eta horietako bat taldeko kapitaina izango da.
- 1.4. Gehienez 6 talde egongo dira, eta erreserba-zerrenda bat sortuko da.
- 1.5. Taldeek, parte-hartzaileak zein erreserbakoak izan, lehiaketa egingo den lekuan egon beharko dute, hasierako orduan, zerrenda pasatzean.

Talde bat bertan dagoela ulertuko da gutxienez 2 pertsona badaude (pertsona bakar batek ezingo du parte hartu). Lehiaketa hasterakoan talderen bat ez badago, ordezkoen zerrendako lehen taldeak beteko du haren lekua. **Puntueltasuna eskatzen da.**

- 1.6. Parte-hartzaile guztiek uneoro bete beharko dituzte antolatzaileen jarraibideak eta arauak.

2. LEHIAKETARI BURUZ

- 2.1. Taldeak hainbat probatan lehiatuko dira, manga, anime, bideojoko, japoniar kultura eta gainerako ezagutzei buruzko ezagutzak probatzeko.
- 2.2. Taula informatizatu bat erabiliko da. Bertan, parte-hartzaileek aurrera egingo dute, txandaka, bertan dauden probak eginez.
- 2.3. Antolatzaileek bertan dauden proba motak eta horien araudi partikularrak azalduko ditu lehiaketarekin hasi aurretik.
- 2.4. Probak gainditzeak puntuak emango ditu, eta lehiaketaren amaieran puntu gehien dituen izango da talde irabazlea. Puntuak irabazteko eta galtzeko moduak lehiaketaren hasieran azalduko dira.

3. IZEN-EMATEARI BURUZ

3.1. Taldeko kide bakar batek egingo du izen-ematea.

3.2. Izen-ematea online egin ahal izango da, oinarri hauek argitaratzen direnetik lehiaketa hasi arte, honako formulario honen bidez: <https://forms.gle/hTy4G9Dqe4yVM9vV8>

Formularioa behar bezala betetzen bada, izena ematen duen pertsonak erantzunen kopia automatikoa jasoko du erabili duen helbide elektronikoa.

Izena emateko formularioarekin zalantzak edo arazoak izanez gero, ekintzak@mangamore.net helbidera mezu elektronikoa bat idatz daiteke.

3.3. Izen-ematea auditorioan bertan egin ahal izango da, baldin eta, parte-hartzaileak lehiaketaren hasieran egiaztatu ondoren, leku librerik geratzen bada.

3.4. Formularioan honako datu pertsonal hauek emango dira:

- Taldearen izena
- Taldeko kide bakoitzaren izena, abizenak eta jaioteguna
- Adierazi nor izango den taldeko kapitaina
- Taldearen izenean izena ematen duen pertsonaren helbide elektronikoa

3.5. Izen-ematea **baieztatzeko**, antolatzaileek mezu elektronikoa bat bidaliko dute ekintzak@mangamore.net helbide elektronikotik formularioan erabili den helbide elektronikora.

Plazak bete ondoren, antolatzaileek ohar bat jarriko dute izena emateko formularioan, izena **erreserba-zerrendarako emango dela adieraziz**. Hala ere, txapelketara joatea gomendatzen da, plazarik libre balego ere.

4. SARIEI BURUZ

4.1. Sariak hurrengoak izango dira:

1. saria: dominak + diploma + opariak
2. saria: dominak + diploma + opariak

Opariei dagokienez, merchandising-a, elikagaiak, mangak, liburuak, Artist Alley-ko artisten sormen-lanak eta abar izan daitezke.

4.2. Sariak lehiaketa amaitzean banatuko dira.

5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

- 5.1. **Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarriak erabat onartzen direla. Hala ere, Motsukora Elkartek, lehiaketaren antolatzailea den aldetik, parte-hartzaileek edo ikusleek egindako edozein iruzkin, kexa edo iradokizunei erantzungo die.**
- 5.2. **Antolatzaileek errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du** Horrela, ez da onartuko Motsukora Elkartek, lehiaketaren antolatzaile gisa, edo Mangamore ekitaldiaren antolakuntzak desegokitzat edo lizuntzat jotzen duen jokabiderik. Kasu horretan, egokitzat jotzen diren neurriak hartzeko eskubidea gordetzen du.
- 5.3. **Motsukora Elkartek, lehiaketaren antolatzaile den aldetik, oinarri hauetan arautu gabe egon arren, lehiaketaren arrakasta handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen onartzeko eskubidea izango du, eta ezin izango da inolako erreklamaziorik egin.**
- 5.4. **Lehiaketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Datuak lehiaketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako. Pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago 1. eranskinean dago.**
- 5.5. **Publizitaterako, lehiaketako parte-hartzaileen irudiak (argazkiak, bideoak, etab.) hainbat komunikabidetan erabili ahal izango dira: telebista-programetan, Interneten, egunkarietan, aldizkarietan, etab. Irudi horiek ez dira inola ere helburu komertzialetarako erabiliko. Ez da ordainsari ekonomikorik egongo sustapen-neurri horientatik.**

HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzak, iradokizunak eta abar izanez gero, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu ekintzak@mangamore.net helbidera.



1. ERANSKINA

PRIBATUTASUN-POLITIKA

Tratamenduaren arduraduna	AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO IFK/CIF: P4800300H Herriko Plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Telefonoa: 946 300 650
DBO Harremanetarako	dbo-dpd@amorebieta.eus
Helburua	Udal liburutegiaren kudeaketa Haur eta gazte zerbitzuaren kudeaketa Zine eta ikuskizunen zerbitzuaren kudeaketa Musika Eskola zerbitzuaren kudeaketa Kultura eta kirol programen zerbitzuaren kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa	DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikatzekoa den lege-betebeharra betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.e) Interes publikoko jardueran edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoetan jardutean burututako egitekoa betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.a) Interesdunaren baiezkoa (argazkiak sare sozialetan edo udalaren webgunean argitaratzeko). Kasu bakoitzean eskatzen den informazioa ahalik eta txikiena eta Udalak kudeaketa edo izapidea gauzatzeko behar-beharrezkoa duena baino ez da izango.
Pertsona/Entitate hartzaileak /Nazioarteko transferentziak	Bai aurreikusten dira norberaren datuen transferentziak. Bai aurreikusten dira datuen nazioarteko transferentziak AEBra, argazkiak sare sozialetan argitaratuz gero.
Eskubideen erabilera	Bidezkoa gertatzen denean, datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, aurka joan, edota eramagarri izateko eskatu ahaliko da, bai eta tratamendua mugatzeko, eta soilik automatizatuak diren erabakien xede ez izateko ere, pribatutasun-politikan ezarrita dagoen prozeduraren bidez gure webgunean informazio gehigarria zuzenduta (ZERBITzuenKATalogo (amorebieta-etxano.eus)).
Informazio gehigarria	Udal honek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduen gaineko informazio gehigarria eskuratu ahal duzu beraren webgunean kokatuta dagoen Datuen babesaren atalean: https://amorebieta-etxano.eus/es/politica-de-privacidad/